

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala:	0170 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa
Programa:	700 - Berdintasuna
Funtzionala:	327 - Herriarren bizikidetzaren sustatzea

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Organoak bizitzako eremu guztietan emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko lan egiten du. Alde batetik, foru politika guztietan genero ikuspegia txertatzen lagunduz, eta bestetik, lurralde mailan, tokiko berdintasunerako politikak sustatuz, talde feminista eta emakume taldeen lana indartuz eta gizartearen berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa eta giza aldaketa eraginez.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoan emakumeen jarduera tasa %51,7koa da, eta gizonena, berriz, %61,2koa. Lansaio motari dagokionez, EAEn lanaldi partziala duten biztanleen %75 emakumeak dira, eta %25 gizonak.

Halaber, emakumeak dira lan esparruan kontziliazio neurriak gehien erabiltzen dituztenak. Adibidez, EAEn 2017. urtean adingabeak zaintzeko eszedentzia hartu zuten pertsonen %93,1 emakumeak izan ziren, eta %6,9 gizonak. Bestalde, etxeko eta zaintza lanen banaketari buruzko EAEko datuen arabera, emakumeek, oro har, oraindik ere gizonek baino ordu eta erdi gehiago lan egiten dute egunero jarduera horietan. Era berean, emakumeek denbora gutxiago erabiltzen dute prestakuntza jardueretan, aisia pasiboan, aktiboan eta kirolean. Horrek ondorio ekonomikoak ditu emakumeentzat. Horrela, Gipuzkoan soldata arrakala %25ekoa da gutxi gorabehera, gizonen soldataren batz bestekoa 28.052€ baita, eta, emakumeena, aldiz, 21.007€. Bestalde, Gipuzkoan gizonen batz besteko errenta pertsonala emakumeena baino 10.646€ handiagoa da, emakumeek 16.556€ko diru sarrerak baitituzte urtean, eta gizonek 27.202€koak.

Datu horiek agerian uzten dute, oraindik ere, lanaren sexu banaketaren eta genero eginkizunen banaketaren aztarnak daudela, eta horiek emakumeen bizi baldintzak okertzea dakartela, eta, gainera, hain larriak diren pobrezia eta feminizazioaren edo indarkeria sexistaren fenomenoak elikatzen dituztela.

Beharrendaren deskribapen xehatua:

- Lan esparruan emakumeen independentzia ekonomikoa eta berdintasuna sustatzeko beharra.
- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen antzematea, prebentzioa eta arreta hobetzeko beharra.
- Zaintzen erantzunkidetasun soziala eta etxeko lanetan nahiz zaintza lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko beharra.

Nori zuzendua:

GFA, Tokiko administrazioak eta elkarteak eta talde feministak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langileria - kanpoko asistentzia teknikoak - aurrekontua.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

1. Planen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa
2. Languneak martxan jarri eta koordinatu.
3. Gaitasun prozesuak diseinatu eta kudeatu.
4. Gidak, orientabideak eta jarraibideak landu,
5. Bestelakoak: diru-laguntzak kudeatu, txostenak egin, bilerak antolatu, egitura inter-instituzionaletan parte hartu.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Planak, aholkularitza eta egiaztatze txostenak, prestakuntza, diru-laguntzak, jarraibideak, sentsibilizazio ekimenak, gidak, jarraipen txostenak.

Programaren arau esparrua:

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, 4/2005 Legea. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, 2/2015 Foru Araua.

EAEn emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII plana Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Foru Plana
Indarkeri sexistaren aurkako Aurre! Plan
Kontziliazio eta erantzunkidetasun plana
Administrazio arloko araubidea

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua:

Foru politikak hobeto lerrokatzea berdintasuna sustatu dadin, elkarlaneko gobernantza indartuz, bai Foru Aldundiaren barruan bai udalekin eta Gipuzkoan berdintasunaren alde lan egiten duten talde feministekin eta emakumeen elkarteekin.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Barnean zein kanpoan abian jarritako berdintasunerako proiektu eta lankidetzak gune kopurua	Kopurua	>=	0,00	0,00	1,00	4,00
Berdintasunerako hiru departamentu unitate gehiago ezartzea	Kopurua	>=	0,00	0,00	1,00	3,00
Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana prestatu, ezarri eta horren jarraipena egiten inplikaturik dauden eragile kopurua eta mota.	Kopurua	>=	0,00	0,00	7,00	30,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Barne baldintza egokiak sortzea genero zeharkakotasuna ezartzeko foru mailan.

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	471.456,78	85.961,00		2020/01/01	2021/12/31	
1.1 Ekintza Emakume eta gizonen berdintasunerako Foru Arauaren jarraipena egitea.	35.620,28			2020/01/01	2020/12/31	
1.2 Ekintza Berdintasunerako departamentu unitateak bultzatzea eta lan marko bat sortzea beraientzat.	10.620,28			2020/01/01	2020/12/31	
1.3 Ekintza Laguntza teknikoak ematea berdintasunerako organoari berdintasunerako foru politikak bultzatzeko, koordinatzeko eta jarraitzeko	115.930,42	85.961,00		2020/01/01	2021/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
egiten duen lanean.						
1.4 Ekintza Foru departamentuei laguntza eta aholkularitza ematea beraien politika sektorialetan genero ikuspegia txertatu eta Berdintasunerako III Planeko ekintzak garatzeko.	53.101,40			2020/01/01	2020/12/31	
1.5 Ekintza III Planean Berdintasunerako Organoari dagozkion ekintzen garapena	256.184,40			2020/01/01	2020/12/31	
2. Jarduketa ildoak: Berdintasunerako politikak tokiko mailan sustatzea, kontuan izanda Lurraldeko udalerriek duten aniztasuna.						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	630.693,36	490.672,64		2020/01/01	2023/12/31	
2.1 Ekintza Berdintasunerako tokiko politikak laguntzea diru laguntza lerroen bitartez.	221.240,56	200.000,00		2020/01/01	2021/12/31	
2.2 Ekintza Berdintasunerako politikak sustatzea Gipuzkoako udaletan.	243.160,12	166.416,73		2020/01/01	2023/12/31	
2.3 Ekintza Lurraldeko udaletan berdintasunerako arloak abian jartzen laguntzea.	73.191,28	34.255,91		2020/01/01	2021/12/31	
2.4 Ekintza Proiektu pilotua modelo bat eta lan sare bat sortzeko Emakumeen Etxeetan (Etorkizuna Eraikiz).	42.481,12			2020/01/01	2020/12/31	✓
2.5 Ekintza Hitzarmena Beasaingo Udalarekin (HerriLab).	35.310,14	90.000,00		2020/01/01	2023/12/31	
2.6 Ekintza EHUko berdintasun masterrari laguntzea.	15.310,14			2020/01/01	2020/12/31	
3. Jarduketa ildoak: Gipuzkoan indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko foru politika koordinatzea.						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	109.962,24			2020/01/01	2020/12/31	
3.1 Ekintza Lurralde mailan koordinatzea berdintasuneko eta foru	26.550,70			2020/01/01	2020/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
gizarte zerbitzuetako alorrak eta Gipuzkoako udalak, hartara indarkeria matxistaren biktimei eman beharreko arreta hobetzeko.						
3.2 Ekintza Laguntzea eta aholku ematea indarkeria sexistaren biktimen arretako foru zerbitzuen arreta berdintasun ikuspegi batetik egin dadin.	26.550,70			2020/01/01	2020/12/31	
3.3 Ekintza Lurralde mailan koordinatzea berdintasuneko eta gazterriako foru alorrak eta Gipuzkoako udalak indarkeria matxistaren prebentzioa hobetzeko.	26.550,70			2020/01/01	2020/12/31	
3.4 Ekintza Erakunde arteko laguntza ematea Beldur Barik programari, gazteekin indarkeria matxista prebenitzeko.	30.310,14			2020/01/01	2020/12/31	
4. Jarduketa ildoak: Mugimendu feminista eta berdintasunaren aldeko emakumeen elkarte-mugimendua sustatzea eta indartzea, baita Foru Aldundiarekin duten harremana ere.						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	667.619,10			2020/01/01	2020/12/31	
4.1 Ekintza Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte-mugimenduaren jarduerak laguntzea.	471.240,56			2020/01/01	2020/12/31	
4.2 Ekintza Emakumeen elkarteei laguntza teknikoa ematea proiektuak egiteko.	18.620,28			2020/01/01	2020/12/31	
4.3 Ekintza GUNEAn partaidetza eta eztabaida prozesuak abiaraztea.	97.137,98			2020/01/01	2020/12/31	
4.4 Ekintza Emakumeen jabekuntzarako eta gizarte partaidetzarako espazioak laguntzea (Donostiako emakumeen etxea).	45.310,14			2020/01/01	2020/12/31	
4.5 Ekintza Irungo alarde mistoaren antolakuntzari laguntzea.	35.310,14			2020/01/01	2020/12/31	
5. Jarduketa ildoak: Erakunde arteko lankidetza aktiboki sustatzea emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez.						

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	44.860,84			2020/01/01	2020/12/31	
5.1 Ekintza Erakunde arteko lana egitea, EAEko berdintasun politikak hobetzeko.	18.930,82			2020/01/01	2020/12/31	
5.2 Ekintza Erakunde arteko lana egitea estatu eta nazioarte mailan berdintasuna sustatzeko.	25.930,02			2020/01/01	2020/12/31	
6. Jarduketa ildoak: Gizartea sentsibilizatzea genero desberdintasunei dagokienez eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde.						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	363.721,68			2020/01/01	2020/12/31	
6.1 Ekintza Berdintasunaren sustatzea enpresetan- Etorkizuna Eraikiz	151.240,56			2020/01/01	2020/12/31	✓
6.2 Ekintza Sentsibilizazio ekintzak eta kanpainak	130.636,30			2020/01/01	2020/12/31	
6.3 Ekintza Berdintasunari buruzko topaketa eta jardunaldiak antolatzea.	45.914,40			2020/01/01	2020/12/31	
6.4 Ekintza Berdintasunari buruzko diagnosiak eta argitalpenak egitea	35.930,42			2020/01/01	2020/12/31	

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Berdintasunerako organoak zeharkako izaera du. Bere jarduera esparru eskusiboa da, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan foru politikak bultzatzea. Organoari dagokio: berdintasunerako foru politikak bultzatu, koordinatu, jarraitu eta ebaluatzea, udal mailan berdintasunerako politikak sustatzeko neurriak ezartzea, Lurraldean sare eta praktika feministak indartzeko baldintzak sortzen laguntzea, indarkeria matxistaren aurkako foru politikak koordinatu, jarraitu eta ebaluatzea, herritarrak sentsibilizatzea eta gainerako euskal herri administrazioekin solaskidetza eta koordinazioa bermatzea.

Kuantifikazioa: 2.288.314,00 (% 100,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Or 1. Prozedura administratibo guztietan genero ikuspegia txertatu.	(% 18,27)	Or 1.1. Departamentuko politika, plangintza, programa eta jardura guztien planifikazioa, implementazioa eta ebaluazioa genero ikuspegitik egitea.	Berariazko trebakuntza jaso duen berdintasunerako koordinazio foru egituretan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa (egitura horietan parte hartzen duten pertsona guztiekiko). Sexuaren aldagaia eta lortutako emaitzen genero azterketa txertatzen dituzten azterketa eta ikerketen ehunekoa (egindako azterketa eta ikerketa guztiekiko). Berdintasunerako klausulak jasotzen dituzten kontratu eta diru-laguntzen ehunekoa (egindako kontratu eta diru-laguntza guztiekiko).

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Or 2. Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzak indartu.	(% 23,08)	Or 2.3. Gipuzkoako udalen berdintasunerako politikak sustatzea eta indartzea, berdintasunerako beren berariazko egiturak, berdintasunarekin lotutako tokiko proiektuak eta lan prozesuak lagunduz eta indartuz.	Berdintasunerako Batzorde Politikoaren, Azpibatzerde Politikoaren, Departamentu Arteko Talde teknikoaren eta Departamentuko barne unitateen bilera kopurua. Berdintasunerako bere politikak egiteko laguntza jasotzen duten Gipuzkoako udal kopurua. Berdintasunerako Organoak parte hartu duen lurralde arteko erakundearen bilera eta topaketa kopurua.
		Or 2.4. Erakundearen arteko trukaketa eta lan komuna egiteko espazioetan parte hartzea, esaterako Berdintasunaren, emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako eta berdintasunaren aldeko euskal udalen sarea.	
		Or 2.5. Gipuzkoako berdintasunaren aldeko mugimendu feministarekin eta emakumeen elkarten mugimenduetarekin parte hartzea eta elkarlanean sustatzea eta koordinatzea.	
		Or 2.6. Maila autonomikoan, mugaz bestaldekoan, estatuan eta nazio artekoan dauden berdintasunerako koordinazioarako eta lanerako espazioetan parte hartzea, esperientziak eta lan moduak partekatuz.	
Or 3. Emakumeen ahalduntzea lagundu.	(% 19,62)	Or 3.1. Emakumeen etxeak eta emakumeen ahalduntzea lantzen duten eskola eta espazioak sortzen laguntzea eta indartzea, beti ere proiektu horiek sarean lan egin dezatela bultzatuz.	Laguntza jasotzen duten Emakumeen Etxe eta jabetuntza eskolen kopurua. GUNEAn, gizarte solasaldirako organoan, parte hartzen duten Gipuzkoako elkarte feminista eta emakumeen elkarte kopurua. Kooperatibismoa, ekintzailatza eta auto-enplegua sustatzeko programen genero-inpaktua (parte hartzearen gainera sexuaren arabera datuak)
		Or 3.3. Bereiziki neska gazteen eta neska migratzaileen ahalduntzea eta asoziazionismoa sustatzen dituzten jarduerak garatzen dituzten Gipuzkoako udalen egitasmoak laguntzea.	
		Or 3.5. Emakumeen elkarten interesei eta beharrei erantzun dieten jarduerak programatzea GUNEA lan markoan.	
		Or 3.6. Gipuzkoako emakumeen elkarten mugimendua eta mugimendu feminista indartzea, beraiek mapa aldira eguneratuz eta berdintasunaren aldeko beraien proiektuak lagunduz.	
		Or 3.7. Gipuzkoako udal txikietan, bereiziki landa eremuetan, emakumeen eta feministen asoziazionismoari berariazko laguntza ematea.	

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Ba 7. Gipuzkoa nazioarte mailan proiektatzea erantzunkidetasunaren erreferente gisa, tokiko gobernantzarekin lotuta	(% 0,96)	Ba 7.1. Erreferentziazko nazioarte mailako sareetan praktika egokiak eta partaidetza zaintzeko sistema bat sortzea (kongresuak, foroak, lantalde mistoak, etab.), politika publikoen esparruko erantzunkidetasunari dagokionez.	Europar erreferente diren eragile eta/edo sareekin izandako harreman kopurua.
		Ba 7.2. Nazioarte mailako praktika erantzunkide onenak toki esparruan zabaltzeko eta sozializatzeko programa bat egitea, udalak eta eskualdeak inplikatzeko eta proiektu partekatuak sortzeko.	Udalekin egindako lan saio kopurua.
Ba 8. Erreferentzia gehiago eta bultzada-gaitasun handiagoa ematea Foru Aldundiari erantzunkidetasun alorrean.	(% 0,96)	Ba 8.8. Klausula sozialak sartzea enpresen kontratazioan, dagokion jarraipen sistema barne, kontziliazio eta erantzunkidetasun esparruan erantzukizunez aritzen diren enpresei lehentasuna emanaz.	Berdintasuneko prestakuntza programan parte hartu duten kargu politikoen ehunekoa, sexuaren arabera banatuta. Langileen kudeaketaren esparruko foru langileen ehunekoa, sexuaren arabera banatuta, prestakuntza jaso dutenena kontziliazioaren eta erantzunkidetasunaren arloan.
Ba 3. Gazteen garapen pertsonalean eta profesionalean estereotipoek duten eraginaren gaineko prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak garatzea "Gipuzkoa eredu"	(% 1,54)	Ba 3.1. Gizonek hazkuntza eta zainketa lanetan parte hartzeari buruzko sentsibilizazio kanpaina bat egitea, aldi berean erreferentziazko eredu berriak sortzera bideratutako ekintza osagarriak eginez eta zainketa lanen funtzio soziala ezagutzera emanaz	Ikasleen datuak, sexuaren arabera banatuak, lanbide heziketaren adar desberdinetan. Ikasleen datuak, sexuaren arabera banatuak, unibertsitateko gradu desberdinetan.
		Ba 3.3. Gazteen artean bokazio teknologikoak sustatzeko "BiziLABE" eta "INSPIRA" programei laguntza ematea, 10 eta 19 urte bitarteko neska gazteen artean bokazio zientifikoak, teknologikoak eta industrialak sustatzeko, ikerketa zentroen sarearen bitartez.	Partaidetza datuak, sexuaren arabera banatuak, eskola kirolean maskulinizatuta eta feminizatuta dauden modalitateetan.
Ba 4. Familia ohituren gaineko prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak garatzea, erantzunkideak ez diren ereduak mantentzen dituzten jarraibideak aldatzeko	(% 3,08)	Ba 4.1. Familia-eskolak izeneko programa diseinatu eta abian jartzea, familia-esparruan jardunbide erantzunkideak garatzera eta horiei buruz sentsibilizatzea bideraturik dauden jardueri buruzko programa: agenda partekatuak, zainketa-lanen banaketa, denboraren erabilera, e.a. Eskola-komunitatearekin zerikusia duten guneetan izaera pilotua izango duten ekintzak antolatzea proposatzen da: eskolarik gabeko ordutegiak, kirola, etxeko lanak, e.a.	Pertsonen zaintzan pasatako batez besteko denbora, sexuaren arabera banatuta. Udaletan familian praktikatzeko kirol jardueren ehunekoa.

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Ba 1. Plataforma digital bat sortzea eta dinamizatzea enpresa erantzunkideak sortzeko, on-line ekintzak nahiz presentziazoak dituztenak.	(% 3,85)	Ba 1.4. Praktika egokien eskualde sarea dinamizatzea, prestakuntza, eskualdeetako agentzien bitartez informazio eta tokiko praktika egokiak jasotzen dituen programa bat diseinatu, betiere enpresak sentsibilizatzeko eta babesteko ahaleginetara zuzendua, batez ere enpresa txiki eta ertainak, kudeaketa erantzunkideko ekintzei eta politikiei dagokienez.	Plataformari atxikitako Gipuzkoako enpresen ehunekoa Kontziliaziorako neurri berrien kopurua, parte hartzen duten enpresetan ezarritakoak plataforman parte aktibo izatera pasa ondoren. Kontziliazio erantzunkiderako neurriak txertatu dituzten enpresa kopurua, kudeaketa aurreratuko prozesuen esparruan.
		Ba 1.8. "Gipuzkoalab: laborategitik gizartera" tokiko ikasketa esperientziak sozializatzea, ekimenean parte hartzen duten enpresek prestatutako programa pilotuak zabaldua, lan espezifiko saioak eginda, gidaliburuak eta materialak prestatuta, eta enpresa-kudeaketari, berdintasunari, kalitateari eta abarri buruzko foroetan hedatuta.	
Ba 9. Proiektu partekatuak eta praktika egokien esperientziak sortzea toki eremuetan, eta lurraldeko politiken transferentzia bermatzea	(% 3,85)	Ba 9.1. Behar eta aukeren mapa bat egitea, kontziliazio erantzunkidearen arloan ekintza partekatuak garatzeko Gipuzkoako udalerrri batean, eragile sozioekonomikoen, eragile sozialen eta erakundeen eskutik.	Toki mailan inplikaturik dagoen eragile kopurua esparruka (herri administrazioa, enpresak, gizarte eragileak).
		Ba 9.2. Tokiko eragileek adostutako ekintzak jasoko dituen laneko plan bat diseinatzea eta ezartzea, antzemandako beharren arabera lehentasuna emanez, eta enpresa baten edo enpresa-elkarte lokal baten, udalerriko ordezkari instituzional baten eta eragile sozialen partaidetzarekin.	
		Ba 9.3. Burututako prozesuaren eta bere emaitzen hedapen eta sozializazio plana diseinatzea eta ezartzea.	
In 13. Foru esparruan barne koordinazioa hobetu eta indartzea, indarkeria matxistaren emakume biktimei ahalduentzeko arreta eraginkorra bermatzearren.	(% 3,85)	In 13.2. Batzorde politiko-teknikoa berdintasunean eta indarkeria sexistan espezializatutako laguntza teknikoaz hornitzea, aholkua eman eta burutzen den lanaren jarraipena eta sistematizazioa egin ditzan.	Indarkeria matxistaren biktime diren emakumeak babesteko eta gizarteratzeko atalak eta Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak modu koordinatuan lan egin duten kasuen kopurua. Haurren eta nerabeen babeseko zerbitzuak eta indarkeria matxistaren biktime diren emakumeak babesteko eta gizarteratzeko atalak batera esku hartutako kasuen igoera.

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
In 15. Erakundeen arteko koordinazioa Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin sendotzea	(% 3,85)	In 15.1. Udalerrietako Berdintasun ataleko eta gizarte zerbitzuetako langileen artean elkarlanerako espazio bat sortzea, elkar ezagutu eta elkarri laguntzeko, zerbitzuari buruzko informazioa eguneratze aldera, eta indarkeria sexistaren egoerei arreta emateko lan-eredu bat, emakumeak ahalduztzen lagundu eta beren bizitza era autonomoan gobernatzeko gaitzen dituen, adostera begira.	Indarkeria matxistaren biktimei arreta ematera bideratuta, lurraldean dagoen protokoloaren koordinazio espazioan parte hartzen duten udalerrien kopurua eta zein ehunekoa den lurraldeko biztanleriari dagokionez. GFako berdintasuneko eta gizarte zerbitzuetako teknikariak eta lurraldeko udaletakoek egindako bileren kopurua. Bilera horietan parte hartu duten udaletako berdintasuneko eta gizarte zerbitzuetako teknikarien ehunekoa.
In 16. Koordinazio instituzionala indartzea, Lurralde eremuan eta EAE eremuan.	(% 1,35)	In 16.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordean era aktiboan parte hartzea (alderdi politikotik zein teknikotik), Emakundek koordinatuta, eta baita aipatutako institutuak sustatzen dituen erakunde arteko beste koordinazio gune batzuetan ere. In 16.5. Emakundek eta Eudelek sustatuta, Berdintasunaren aldeko eta indarkeria sexistaren aurkako euskal udalerrien sarearekin lankidetzan aritzea indarkeria matxistaren aurkako borrokan.	Indarkeria matxistaren alorrean, EAE mailan, egin diren bilera teknikoak eta politikoen kopurua. Erakundeen arteko II. Akordioaren jarraipena egiteko batzordearen bilera kopurua, batzorde hori sortu ondoren.
In 1. Indarkeria matxistaren emakume biktimei arreta emateko atalei atxikitako foru- nahiz udal-langileek berdintasunaren eta indarkeria matxistaren inguruko berariazko gaikuntza hobetzea.	(% 1,92)	In 1.5. Urtero prestakuntzako lurralde plan bat egitea berdintasuneko eta indarkeria sexistaren prebentzioari buruzko ikastaroak eginez, indarkeria sexistaren emakume biktimei arreta emateaz arduratzen diren udal langileei zuzendua berariaz.	Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumezkoen arreta emateko zerbitzuetan lan egiten duten Foru Aldundiko langileen ehunekoa, zehazki, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorrean Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako 50 orduko eta gehiagoko prestakuntza espezifikoa izan dutenen ehunekoa. Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko udal zerbitzuetan lan egiten duten udal langileen ehunekoa, zehazki, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren alorrean Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako 15 orduko eta gehiagoko prestakuntza espezifikoa izan dutenen ehunekoa. Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko foru zerbitzuei dagokienez, kontratatutako entitateen barruan zuzenean lan egiten duten pertsonen ehunekoa, zehazki, aipatutako kontratuaketa klausula sozialak betez berdintasunaren alorrean prestakuntza espezifikoa dutenen ehunekoa.

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
In 3. Bermatzea lurraldean badaudela hainbat mekanismo aztertzeke, batetik, indarkeria matxistako egoeren bilakaera, eta, bestetik, elkarreetatik nahiz erakundeetatik ematen zaien erantzuna.	(% 2,88)	In 3.1. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Think Tank bat abian jartzea eragile estrategikoekin (elkarreak, unibertsitatea, erakundeetako arduradunak, adituak), hausnarketa partekatua egiteko, balizko ikerketa lerroak identifikatzeko, eta indarkeria matxistaren zergatiak, agerpenak eta emakume biktimen arreta hobeto ezagutzeko. Etorkizunari begira, gaiaren inguruko kluster modura eratu dadin.	Indarkeria egoeren eta arazo horri emandako erantzunen bilakaera aztertzeke mekanismotzat jo daitezkeenez, gaiaren inguruan prestatutako dokumentu eta txostenen kopurua.
In 11. Haur eta nerabeak sustatu eta artatzeko foru politikak Berdintasun balioak bultzatu eta indarkeria matxista prebenitzen lagunduko duela bermatzea.	(% 3,85)	In 11.5. Udaletako berdintasuneko eta gazterriko zerbitzuen arteko lankidetzaren lantzea Beldur Barik bezalako ekimenak bideratu ahal izateko. In 11.6. Berdinbidean programa indartzea, udal txikiek baliabide gehiago izan ditzaten landa eremuko gazteen artean berdintasuneko balioak eta indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko.	Beldur Barik programari lotuta eta haur eta gazteei zuzenduta, indarkeria sexistaren prebentzioarako jarduerak edo programaren bat garatu duten lurraldeko udalerrien kopurua. Haur eta gazteei zuzenduta, indarkeria sexistaren prebentzioarako jarduerak edo programaren bat garatu duten lurraldeko udalerrien kopurua, Berdinbidean parte hartzen dutenena, hain zuzen. Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren alorrean kaudimen teknikoak eskatzen duten klausulak betez antolatu diren udalekuak kudeatzeko kontratatutako entitateen ehunekoa.
In 5. Indarkeria sexistaren eta indarkeria sortzen duten genero ezberdintasunen aurrean gizarte gaitzespena handitzea, Foru Aldundiak sustapen eta eredu lana eginez.	(% 4,23)	In 5.1. Gizartearen sentsibilizatzeko ekintzak egitea, hausnarketa, eztabaida eta jabetzea sortzen dituzten genero ezberdintasunei eta indarkeria sexistari dagokionez.	Indarkeria sexistari lotutako gaiei edo kanpainiei dagokionez, sare sozialetan eta GFAko web orrian izandako interakzio kopurua. Emakumeen kontrako indarkeria baztertzeko GFAk antolatutako ekitaldi publikoen kopurua.
In 7. Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurrean sentsibilizatzeko funtsezkoak diren gizarte eragileekin elkarriketa egiteko bideak zabaltzea eta sendotzea.	(% 2,88)	In 7.1. Indarrean dauden elkarriketa-bideak erabiltzea, sendotzea eta, egokia bada, bide berri batzuk sortzea, emakumeen elkarreak indarkeria sexistaren emakume biktimei arreta emateko foru baliabideei buruz informatuta mantentzeko, prebenitu, hauteman, lagundu eta bideratzeko funtsezko eragileak izan daitezkeen neurrian. In 7.2. Emakumeen etxeak indartzea, indarkeriaren emakume biktimak hauteman, prebenitu eta bideratzeko tokiko erreferentzia gisa. In 7.3. Lurraldeko elkarte feministei eta emakumeen elkartei zuzendutako diru laguntzen esparruan berriazko ildo bat ezartzea emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurrean sentsibilizatzeko proiektu berritzaileak babestearren.	Indarkeria sexistaren alorrean, emakume elkarrekin eta talde feministek GFArekin izandako elkarriketen kalitate balorazioa (1-10). Emakumeen Etxeak indartzera bideratutako ekintzen kopurua, indarkeria sexistaren kontrako prebentzio eta sentsibilizazio prozesuan funtsezko eragile sozialak diren aldetik. Emakume feministen elkarte sareari emandako diru laguntzekin gauzatutako proiektuen kopurua, betiere indarkeria matxistaren kontrako sentsibilizazioa eta prebentzioa sustatzeko helburua dutenen kasuan.

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak, euskarazko administrazio atalaren aitorpena du. Eta horrek, euskara, laneko zein harremanetarako hizkuntza nagusia bihurtzen du gurean. Baita, herritarren harreraren, laneko prestakuntza eta sustapenean, kontratazio administratiboan eta aplikazio informatikoetan.

Kuantifikazioa: 21.564,98 (% 0,94)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	(% 5,88)	1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak
		1.2.2. Jendaurreko ekitaldiak
		Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da.
		Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da. Ekitaldien antolamendu fasean hizkuntza trataera zehatza definituko da aldibereko interpretazioaren beharrak barne.
		Komunikazio Planean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da
		Prentsan jartzen diren iragarkiak eta gainerako publizitate ekintzak 2 hizkuntza ofizialetan egingo dira.
		Prentsa iragarkiak eta gainerako publizitate ekintzak 2 hizkuntza ofizialetan egingo dira.
2.1. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 13,72)	Hizkuntzen erabilera orekatua bultzatuko da eta edozein kasutan hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Dokumentu guztiak elebitan egongo dira.
		Berariaz harremana euskaraz izan nahi duten herritar, enpresa eta erakundeei zuzendutako txostenak euskaraz sortzeko urratsak emango dira.
		Hizkuntz irizpideak sartuko dira entitateekin sinatutako hitzarmenetan
		Proiekturen bat aurrera eramateko kontratu bat sinatu behar bada, honek hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea beteko du.
		Bi hizkuntzen erabilera bultzatuko da, eta edozein kasutan, hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Dokumentu guztiak euskara eta gazteleraz egongo dira.
		Erabiltzaileei informazioa euskaraz zein erdaraz ahalbidetzen da
2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 3,92)	2.2.2. Telefonoz, online eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak
		2.2.3. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak
		2.2.1. Harrera

Kategoria	Kategoria %	Nola
3.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala	(% 17,65)	3.2.1. Informaziorako edota Komunikaziorako tresnak.
		3.2.2. Lan-bileretako idatziak
		3.2.3. Erakundearen barne harremanetarako idatziak
		Ikerketak burutuko dituzten enpresen kontratazioan hizkuntz irizpideak erabiliko dira. Txosten guztiak elebitan aurkeztuko dituzte kontratatutako enpresek.
		Argitaratutako dokumentu guztiak elebitan egondo dira. Gero eta dokumentu gehiago euskeraz sortzeko pausoak emango dira
		Euskaraz bidaltzea langileentzako komunikazio orokorrak
		Bidaltzen diren idatzi guztiak 2 hizkuntza ofizialetan idatziak izango dira.
3.3. Ahozko komunikazio bertikala eta horizontala	(% 9,80)	3.3.1. Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak
		3.3.2. Erakundearen barruko telefonozko harremanak
		3.3.3. Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak
		Berariaz harremana euskaraz izan nahi duten herritar, enpresa eta erakundeei zuzendutako txostenak euskaraz sortzeko urratsak emango dira.
		Euskaraz bidaltzea langileentzako komunikazio orokorrak
5.1. Administrazioa	(% 7,84)	5.1.1. Administrazioekiko idatzizko harremanak
		5.1.2. Administrazioekiko ahozko harremanak
		Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da. Bilera eta ekitaldien antolamendu fasean hizkuntza trataera zehatza definituko da, interpretazio beharrak barne.
		Udalekin harremanetan (komunikazioak, aurkezpenak, udal txostenetan) euskarari lehentasuna emango zaio.
5.2. Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu-eta zerbitzu- hornitzaileak, etab.	(% 9,80)	5.2.1. Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak
		5.2.2. Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak
		Azterlanak eta auditoretzak burutuko dituzten enpresen kontratazioan hizkuntz irizpideak erabiliko dira. Txosten guztiak elebitan aurkeztuko dituzte kontratatutako enpresek.
		Oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira.

Kategoria	Kategoria %	Nola
5.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.	(% 27,45)	5.3.1. Beste entitateekiko idatzizko harremanak
		Deialdi, argitalpen eta bereziki ekitaldi publikoetan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da. Kontratazioetan hizkuntz irizpideak txertatuko dira.
		Hitzarmena arautzen duten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.
		Proiektuaren komunikazio atalean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da.
		Euskararen sustapena udal sektore publiko osoarekiko harremanetan
6.3. PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea	(% 3,92)	6.3.1. Langileen kontratazioa eta barne sustapena

PARTAIDETZA PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Beren izaera edo funtzioak direla eta, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen duten entitate publiko eta pribatuekin partaidetzarako eta lankidetzarako harremanak eta bideak ezarri ahal izateko, Gipuzkoako Lurralde Historikoan GUNEA deituriko solaskidetza politikorako esparru parte hartzaile bat dugu. Bertan mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteekin hartu-emanak ditugu, eta, era horretan, helburu bikoitza lortzen dugu: emakumeengan eragina duten foru politiken eta berdintasuna sustatzeko berariazko politiken osaketan, aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea; eta, emakumeen autonomia eta jabekuntza sustatzea, bizitza publikoaren, kulturalaren, ekonomikoaren eta sozialaren alderdi guztietan herritartasun aktiboaren jardunbideak indartuz.

Kuantifikazioa: 12.241,86 (% 0,54)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Norekin
1. Espazio edo egitura parte-hartzaile bat	(% 7,14)	Berdintasunari loturiko gaien inguruko partaidetza eta elkarriketarako espazioa.	Herritar antolatuak, Herritar ez antolatuak
2. Politika publiko baten informazio eta kontrastea	(% 42,86)	Departamentu bakoitzak urtean zehar egindakoaren gaineko informazioa bertako zerbitzuruekin kontrastatuz.	Herritar antolatuak, Herritar ez antolatuak, Teknikariak
		Berdintasunerako organotik aholkularitza emanez	
		Foru Aldundia eta lurraldeko emakumeen etxeen arteko elkarlanerako sare bat sortu, eta proiektu pilotu bat martxan jarritz.	
		EAEko berdintasunerako politika publikoen erakunde arteko koordinazio espazioetan parte hartuz.	
		Estatu eta nazioarte mailako berdintasunerako politika publikoen koordinazio eta hobekuntzarako espazioetan parte hartuz.	
3. Kontsulta, galdeketa zuzena	(% 7,14)	Udal teknikariei diru-laguntza oinarrien gaineko balorazio eta hobekuntza proposamenen gainean galdetzen zaie.	Beste administrazioak, Teknikariak
4. Politika publiko baten deliberazioa	(% 14,29)	Berdintasunerako III Foru Planaren diseinu prozesuan parte hartze zuzena izango dute departamentu guztietako teknikari, zerbitzuburu eta politikari arduradunak. Beraiekin elkarlanean adostuko dira hurrengo urteetan garatu beharreko ekintzak.	Beste administrazioak, Teknikariak
		Berdintasun saila sortzeko aukera eta nahia duten udalak Foru Aldundiarekin harremanetan jarri, eta epe luzerako bidegaragarritasun posiblea aztertzen dute elkarrekin (udala+aldundia). Deliberazioa bi erakundearen artean ematen da, beti ere, aurretik egindako azterketaren emaitzetan oinarrituz.	

Kategoria	Kategoria %	Nola	Norekin
5. Politika publiko baten inguruko deliberazio eta proposamen adostua	(% 28,57)	Foru Aldundiak aholkularitza eskaintzen dire udalei berdintasunerako plangintza propioak diseinatu eta garatzeko. Plangintza egiterako orduan, udal politikari eta teknikariek, lan ildo bat aukeratu, lehentasunezkoa, eta aldundiaren laguntzaz planifikatu eta garatzen dute.	Beste administrazioak, Teknikariak
		Foru Aldundia eta Beasaingo udalaren arteko elkarlanean HerriLab proiektuaren garapena eta jarraipena eginez	
		Udaletan eta aldundian indarkeria matxistaren biktimak artatzen ari diren gizarte langile eta teknikarien arteko lan taldea sortu eta dinamizatuz, biktimei lurraldean ematen zaien arreta hobetzeko klabeak identifikatu eta adostuz.	
		Udaletako eta aldundiko gazteria eta berdintasun teknikarien lan taldearen sorrera, eta dinamizazioa, haurtzaro eta nerabezaroan ematen diren sexu abusuen gaineen hausnartzeko.	

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2019	2020	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2021	2022	2023	2024 eta hurrengoak/ 2024 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	515.888,00	531.014,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	865.800,00	929.050,00	286.640,00				286.640,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	631.500,00	828.250,00	230.000,00	30.000,00	30.000,00		290.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	2.013.188,00	2.288.314,00	516.640,00	30.000,00	30.000,00		576.640,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	2.013.188,00	2.288.314,00	516.640,00	30.000,00	30.000,00		576.640,00

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		531.014,00				531.014,00
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		929.050,00		286.633,64		1.215.683,64
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES		828.250,00		290.000,00		1.118.250,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		2.288.314,00		576.633,64		2.864.947,64
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total		2.288.314,00		576.633,64		2.864.947,64